

eta Erriaren NORTASUNA argitzeko, arazoak eta eragozpenak bastartuz.

Karkastillo'n argi dago, nai-ta gaur agertzen dan itxuragaitik, euren buruak irikitzen dagozela, ZAIN! euren NORTASUNEZKO ARDURAK noz bete.

Euren aitzaki bat izango ote da ba..., guk ibili garan erri guztietatik batu doguzan iritziak: "GAURKO ILKETAK EZ DAUTSIELA MEZEDERIK EGITEN?"

Nik uste dot egia dala, bear diran argibideak illuntan geratzen diralako, ainbeste ilketa, estanda eta keakaz, eta batez ere ziur! gure etzai menperatzaillaren

gezurra danak jakin arren, ondo baiño obeto dakielako zarataren aitzakiaz beren maltzurkeria ostontzen, eta danon begiramena beren arazotik aldatuz, gure arazo biurtu.

Gaurko lana, gure NORTASUNAREN ARDURAK betetea da, ori lortu ez-gero, ASKATASUNA LORTUTA DOGOLAKO.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2001 'an EPAILLA'ren l'ean

IRUÑA'KO GOIGOT'ZAI JAUNARI ERASPEN **GUZTIZ** ETA LEIALKI

Idazlan au "Diario de Navarra'n agertu da Naparroa'ko euskeraz. Errez ulertuko chite bizkaitarrek.

Agur, On Fernando. Atzo, ilbeltzak, 26, irakurri dut argitaratu-berria duzun gutuna. Gauza ederrak esaten dituzu. Bañan...

Elizak badula –dionu– bere-berea dun izkeraz, –con su propio lenguaje– itzegiteko eskubidea. Eskubidea eta bearkizuna! Batez ere orain, Euskalerrian alde bateko eta besteko nazionalismo zakarrek gure kristauen –eta ez-kristauen– buruetan orrenbesteko illuntasuna, eta biotzetan orrelako gorrotoa sortu digutenean.

Bai, badu Elizak itzegiteko eskubidea eta bearkizuna. "Bere" izkeraz edo ez, izkera ulerterrezez beintzet, XXI mendeko gure jendeak errez ulertu dezaken izkeraz, beintzet, euskaldunik geienak Elizatik urruti bizi bait dire. Batzuek oso urri, gezurra eta iruzurketa-bidez alkar-ezin-ikusia ereiten ari zaizkigun izparringilari eta gainerako mezulariak adibidez, eta beren burua marsist-leninista aitortzen duten ETA'tar odol-isurleek. Oiek ez dute Elizaren itzegiteko erarik ulertzen.

Nik neronek ere ez dut uste osoro ulertu zaitudanik. Batzuetan diozuna beiño geiago esan nai duzula bait dirudi. Pakerako alkarrizketa eskatzen duzunean adibidez. Alkarrizketa norekin? HB'rekin ere bai? ETA'rekin ere bai? Edo zure adiskideekin bakarrik? Auekin bakarrik itzegiñez ez duzu ba pakerik lortuko. Zurekin asarre daudenekin itzegin bearko duzu, zuk benetan nai duzuna pakea ba'da.

Beste batzuetan, esaten duzuna, esan nai duzuna ez dala dirudi. Esaldi ontan adibidez: "nik pakea aipatzen dutanean ez dut ETA'k eta nazionalistek itz oien bidez adierazten dutena esan nai. Eztare demokrata batek adierazi nai lezakeena".

Zer da ba zuk adierazi nai duzuna? Esaldi ortan gaiñera ETA ta nazionalistak bat egiten dituzu, eta ori egiñez izugarrizko oztopoa dagizu. Euskalerrian jeltzaleak, egiazko nazionalistak, asko dira, jende kristaua, ETA'ren etsairik aundiena. Beste esaldi baten Euskalerriko burujabetza eta askatasuna "uste usteko" zuzentasuna duten gauzak direla diozu, –"pretendida justicia de la autodeterminación y la independencia de Euskal Herria"–, ETA'k eta nazionalista "radikalek" eskatzen duten gauza: "libertad de configurar el nuevo Estado independiente de Euskal Herria".

On Fernando: ori, ETA'k eta "HB"k ez eze nazionalista jeltzale kristau zintzo guztiek ere eskatzen dute, eta ERRI batek askatasuna eskatzeko eskubidea Elizaren dotriña dela zuk zerorrek beste iñork beiño obeki daki zu. Orregatik diot, batzuetan, itxuraz, esan nai duzuna beiño geiago esaten duzula. Oridelata, gutun orrek miñ aundia sor dezake zure ardi askoren biotzetan –agian zure ardirik onenen biotzetan–. Madrid'eko Jaurilaritzaren alde agertu zarala bait dirudi.

Barkatu, On Fernando: idatzi dutana ez dut zu mintzeko asmoz idatzi.

Lategi'tar Bixente (945220050).

1 Ona gotzaiaren itzak: "Cuando yo digo paz no quiero decir lo que los ter'oristas o los nacionalistas puedan significar con esa misma palabra, ni siquiera lo que un democrata pueda expresar con ella, sino lo que en el contexto moral y cultural de la iglesia significamos con esa palabra con sus elementos sociales personales y religiosos". Orixe da bá, On Sebastian, Sabino'z gero nazionalistek beti gura izan duten pakea.